

Den-denok bezala, Avram Noam Chomsky ere zahartzen ari da. Baina 90 urte bete berri, osasun pattalaldi batzuk gorabehera, oraindik egurrean dabil pentsalari politiko errebelde estatubatuarra, nekagaitz, beste asko nekatuko lukeen lan kargarekin. Munduko herrialde urrutienetaraino politikaz hitzaldiak ematera bidaiatuz, milaka posta elektroniko erantzunez, elkarrizketak emanez, beti bezain argi eta zorrotz.

artikulu batek dituen mugetarako egokiena ere. Baina mugak aitortuz eta ahalegina arreraturaz, horretan saiatuko gara lerrootan. Gizakion inguruko ezagutzari, gure hizkuntzak, adimenak, ekintzak, izaki politiko garen heinean gure jokaerak hobeto ulertzeko Chomskyk egindako ekarpenak itzelak izan dira. Merezi duten onespene eta sona ongi irabazia dute. Matematika eta hizkuntzalaritza formalaren inguruko lan oso konplexuak ditu, lerrook sinatzen dituenarentzat la-

rregi espezializatuak. Baina baditu politikaren inguruko lan sinple eta oso ulergarriak ere. Bere obra, hortaz, bitan banatu genezake: produkzio zientifiko oso zehatza (espezialistentzat) eta publiko zabalarari bideratutako irismen handiko eta, sarritan ironiaz kargaturiko, kritika politikoak. Hizkuntzalaritza irauli Chomskyrentzat hizkuntza sortzetiko dohain biologikoa da. Gure ezagutza eta ulermena berezkoak dira, gure natura

komunak hegoak sortu beharrean hankak eta besoak sortu dituen bezala sortuak. Haren tzat, gainera, ez dago soilik hizkuntzaren berezko ahalmen hori, munduko hizkuntza guztien egituretan gramatika unibertsal bat dagoela defendatzen du. Eta haurrek, burmuinean duten plastikotasun ikaragarriaz baliatuz, hizkuntzaren gramatika hori barneratzeko ahalmen ikaragarria dute. Egia da nazioarteko zientzialarien komunitatean teoria hori ez zela aho batez onartu,

{ analisia } **Mikel Zubimendi Berastegi**

90 urte... eta egurrean!

Filadelfian 1928an ezkerreko sionismoan sinisten zuen errusiar juduen familia batean sortua, judutarren jakinduria barneratu eta hebreera ikasi zuen. Gaitasun handiko haur prodijioa izan zenak ekarpen itzelak egin ditu, hizkuntzalaritzan bereziki, baita sistema politikoen kritika ikaragarri argigarriak ere. Intelektual konprometituaren paradigma haragitzen du Chomskyk, justizia sozialaren eta mundu egiazki arrazional eta gizatiar baten aldeko konpromisoa; bere salaketa eta ekintzaletasun politikoagatik pentsamendu kritikoaren eredu da. Zaila da, zaila denez, azkenaldiko intelektual ezagun eta errespetatuenaren idearioa laburbiltzea, are ia ehun liburu eta milaka artikulutan bildutako ideario mardula izanik. Ez da erraza, ezta, agian, aldizkari

Aitona baten epeltasuna dario jenioari. Ebidentzietan errotutako egien pentsalaria da Avram Noam Chomsky, umila, arrazionala. Ekintzailea, libertarioa, ilustratua. Urteetan aurrera joan arren, estatubatuarraren ekarpenek gaurkotasun eta zorroztasun osoa mantentzen dute.

kritiko ugari badituela, gehiegizko berezkitasun horri lotuegia omen dagoelako. Ez da egia txikiagoa, baina, irauli egin zituela hizkuntzalaritzaren uste asko, are zientzia kognitiboaren ikerketa berrietarako lerro askoren zimenduak finkatu zituela. Hizkuntzalaritzara bizitzaren txiripa batek eraman zuen pentsalaria ez da, baina, sekula hizkuntzaren eremura mugatu. Berak bultzaturiko hizkuntzalaritzaren iraultzak adar asko ditu, esate baterako, psikologia modernoan edo filosofian fruitu asko utzi dituztenak. Gizakien naturaren eta informazio prozesatzeko dugun moduaren inguruan erantzunak eman eta galderak planteatu ditu. Izan ere, Chomskyrentzat hizkuntzaren azterketa aski esanguratsu batekin bakarrik erantzun dai-

tezke gizakien jokaerak planteatzen dituen galderak.

Hizkuntzalaritza modernoaren oinarri berriak finkatu, edo ordura arte zeudenak inarroteaz gain, filosofian ekarpen garrantzitsuak egin ditu. Eta politikan, zer esan! Bere adimenaren indarrak, gaitasunak, jakintza eremu zabal baten jabe izateak, bere ikusmen logikoak, siliziozko memoriak, agian, XX. mendeko pentsalaririk handiena izatera eraman dute.

Lanean erabat diziplinatua, ebidentziaren aurrean fanati-

koa da Chomsky. Printzipioarekiko debozioan birtualki masokista. Hala ere, pertsona umil, bero eta hezia da. Jenioa. Aitona baten epeltasuna dario, sinesgarria da oso.

Intelektual harro eta handiusteen kontrakoa, “mandarin berrien” aurrean arkatza eta paperezko teorikoa izan da, egorik gabea, baina, hori bai, karisma handikoa. Karismak, baina, bere horretan, ez gaitu zertan inpresionatu behar: karismatikoek irrazional eta immoralenak izan baitaitezke.

Kapitalismoaren kritiko zorrotza, bereziki AEBen kanpo politikarena, Vietnamgo gerraren aurkako protestetan zaildu zen ekintzaile bezala. Orduan argitaratu zuen “Intelketualaren erantzukizuna” saiakera liburua, mundu mailako ekintzaile askoren onarpen zabala jasoz.

Egia objektiboa


Chomskyrentzat, intelektuaren funtzio kritikoa oinarri argi eta sendo batzuekin erai-ki behar da: arrazoiaren iris-

Noam Chomsky
hizkuntzalari, politikaren
filosofo, pentsalari
ilustratu erradikala.
GAUR8

mena zabaldu behar da beti, eta, egia, arrazionalki bilatu, hura ezkutatzen eta trabatzen duten tapakiak kenduz. Boterearen ideologiak egiari ezartzen dizkion mugak eta iragazkiak pasatu behar dira eta botere politikoaren erabaki irrazionalen kontrako salaketa ekintzetan parte hartu.

Formulazio horrek antz handia dauka bere garaian Jean-Paul Sartrek “intelektualen konpromisoaz” planteatu zuenarekin, Chomskyrena geroago bezala, espiritu arrazionalista batek blaitutakoa. Nahiz eta Sartrearen kasuan, bere konpromisoa sozialismo marxistarekin lotuta izan, eta, Chomskyrenean, geroago aletuko dugun sozialismo libertarioarekin.

Idazlearen, pertsona ondardu ororen, ardura intelektua-




la egia esatea da Chomskyrentzat. Eta berak aipatzen dituen egiak, batez ere, egia praktikoak dira: gizakiekin eta bere bizitza soziopolitikoarekin zerikusia dutenak.

Chomskyren helburua esplikatzeko da, ez deskribatzeko. Eta, hartara, printzipio orokorrak fenomeno partikularretan ezartzen ditu. Mundu politikoaren konplexutasuna sinplifikatzeko aldera, egia funtsezkoak oso hitz gutxitan azalduz. Ez dauka, *a priori*, teoriarik, ebidentzia enpirikoaren argitara ebaluatu behar baita den-dena, bestela, metafisikan eta idealismoan eroriko ginatkeelako.

Mundua, Chomskyrentzat, ez dago “diskurtsoek”, “hiztegiek”, “imajinarioek”, “erai-kuntza sozialek” determinatua. Harentzat, zapalkuntza

eta boterea ez dira soilik buruan existitzen, ezin daiteke zapalkuntzatik askatu hitz egiteko eta pentsatzeko beste era batean pentsatuz eta hitz eginez soilik. Zapalkuntza eta boterea objektiboki errealak direlako. Zentzu horretan, filosofo estatubatuarra arrazionalista da, materialista, postmodernismo masturbatzaile hutsaren aurkakoa. Baliabideetara irismena izatea funtsezkoa da berarentzat, superbibentziarako, influentzia sozialerako, edukazioa, botere politikoa, bizi maila altua lortzeko funtsezkoa. Eta baliabideetara irismena izateko aukera klase sozialak definitzen du. Horra materialismoaren



Intelektual engaiatua da Chomsky, ekintzailea. Irudian, Palestinaren aldeko protesta batean. GAUR8

an, bere azterketak klase borrokaren ideian sustraituta daude, botere kapitalistaren izaera inperialistan, nolabaiteko determinismo ekonomiko batean. Eta, jakina, langileen duintasun eta sormena bezalako balio marxisten defentsan.

Bere bizitza pribatuaz, min, sentimendu edo esperientzia pertsonalez hitz bakar bat esateko beti uzkur, Chomskyri betidanik eman dio erreparoa gauzak pertsonalizatzeari. Ez ditu sekula ezkerren subkulturetan hainbeste gurtu diren "izen handiak" gurtu, izan Lenin, Gramsci edo Foucault. Hori egitea, elitista eta handiuste jokatzeko litza-tekeelako. Eta, batez ere, pentsalari handi horien lana, berarentzat, zentzu onaren elaborazioak baino ez direlako izan.

muina, materialismo marxistaren zentzu ona.

Ezkerreko erradikaltasuna, Chomskyren ikuspegi logikorekin, zilberrera begiratzen duen subjektibotasunean baino, identitate subjektiboetan edo nork bere gorputzarekin duen harremanean baino, mundu errealekin engaiatu behar da, bertan konfiantzazkoa, emankorra eta aktiboa den esku hartzea lehenetsiz. Deseraiki, problematizatu, ukatu edo zatitu baino, konfiantzaz sortu eta sintetizatuz. Orokorra denaren aurrean, partikularra fetitxe egiteke. Errealismoaren zentzu ona eta egia objektibagarriaren ideia defendatuz.

Chomskyrengana ez joan egia objektibagarri bakarria egia objektiborik ez dagoela dela esaten. Ez da intelektual elitista, baina bai oso serioa.

Ironia falta ez zaion arren, hitzekin, kontzeptuekin, irudiekin jolastea ez du gustuko. Bere obra ez da brikolaje lan bat. Bere helburua ez da inoiz izan probokatzegatik probokatzeko.

Sozialista libertarioa

Akademiako zein kazetaritzako lanetan ematen dituen zehaztasunak, datu ikaragarriak ikusita, ebidentzietan oinarritutako politikaren gaineko bere interpretazioak irakurrita, indartu egiten da ideia bat: ezkerrekoa izatea, are ezker muturrekoa, ez da ideologikoa edo partziala, zientifikoa eta arrazionala baizik. Behinik behin, defendatzen dituzun baloreak demokrazia, giza askatasuna eta ongizatea baldin badira.

Zaila da Chomsky ildo ideologiko zehatz batean ala

bestean errotzea. Bere ideiek iturri edo tradizio politiko askotatik edan dute. Funtsean anarkista dela esan genezake, baina marxista ere bada. Liberalismo klasikoaren ekarpen aurrerazaleenak hobesten ditu, honek, jatorrian, askatasuna eta gizabanakoen aukerak baloratzen zituelako gogobetetasuna aurkitzeko.

Edo nahi bada, sozialismo anarkistaren aldekoa da. Demagun, sozialista libertarioa. Izan ere, liberalismoa, bere esangura nobleenean, jendearen askatasun eta duintasunarekiko kezka baldin bada, horrek esan nahi du boterarekiko mesfidati izan behar dela beti. Boterea ez dela bere baitan justifikagarria eta desmuntatu beharra dagoela ez badu arrazoi sinesgarririk ematen bere burua justifikatzeko. Eta boterearen egiturak desmuntatzeko bultzada

hori anarkismoaren bihotze-ko taupada da.

Pentsalari handi honen pentsamendu politikoan badago, hortaz, funtsezkoa den haria: Estatua gizartearen erdian kokatzearen kritika, izan kapitalismoan ala sozialismoan.

Hortik datorkio sozialismo boltxebikearekiko betidanik erakutsi duen jarrera kritikoa. Leninista izan barik, marxismoaren zutabe nagusiak –klase borroka, produkzio harreman gatazkatsuak, jokaera soziala funtsean tesuinguru instituzionalak determinatzea, estatu kapitalista, inperialismoa...– bere egin eta zutabeon gainean eraiki du bere pentsamendua.

Ez du inoiz bat egin marxismoaren iraultzaren teoria ortodoxoarekin (langileria- ren diktadura eta abar eskatzen dituen), baina, muine-

Beste hitz batzuetan esanda, Chomsky antikapitalista amorratua da, bai, baina ez da pop-kultura eta postmodernismoarekin sekula liluratu. Handinahirik gabea, partikularren eta unibertsalaren arteko fusioaren bidetik jo du, gizakien arteko aniztasuna gizakiaren natura unibertsalean oinarritzen dela arrazoituz, pertsonala denetik harago existitzen den pertsona bere lanaren abiapuntu eta helburu eginez.

Menderatze teknikak

Zerbaitetan aditua baldin bada Chomsky, gaur egungo gizarteetan boterearen egiak eta botereak menderatzeko erabiltzen dituen teknikak azalarazten da. Abiapuntu argi bat du: ez dago AEBetako edo munduko masak kontrolatzerik bakarrik indarraren

bidez, hau da, inbasio, erre-
presio, tortura, diktadura, sa-
rraski bidez soilik. Indarraren
erabilerok guztiok pentsa-
menduari kontrol zorrotza
dute lagun, kontsentsu so-
zial, politiko eta ekonomikoa,
hegemonia ahalbidezeko ja-
kinaren gainean eraikitako
ideien elaborazio zehatz bat.

Detaile askorekin horren
kasu praktiko asko ematen
ditu, “ireki eta demokratiko”
deitutako gizarte askotan
ematen den pentsamendu-
aren kontrola esplikatuz eta
salatuz. Galdera hauetako
erantzunak ematen tematzen da,
pedagogia beldurgarri argi
batekin: nola eraikitzen da
“egia ofiziala”? Nola manipu-
latzen dira datuak eta gertae-
rak jendeak beti norabide ja-
kin batean –ekonomikoki
boteretsuak diren klaseen in-
teresen alde– interpreta di-

tzan? Zein forma zehatz era-
biltzen du kapital handi
transnazionalak bere interes
partikularra “nazioaren eta
demokraziaren interes oro-
kor” gisa azaltzeko?

Propagandari eta pentsa-
menduari kontrolari egin-
dako kritika bere apustu inte-
lektual eta bitala izan da, beti
eta betek. Harentzat, erai-
kuntza ideologiko mailan,
kontsentsuak ez dira Estatu-
aren politikekiko herritarren
oniritzitik bat-batean sor-
tzen, eskala industrialean fa-
brikatzen dira, beste merkan-
tziekin egiten den bezala.

Ameriketako Estatu Batuen
inperialismoaz hitz egitea,
Chomskyrentzat, triangelu
triangeluar batez hitz egitea
bezalakoa da. Amorratua da,
nekagaitza, bere herrialde-
aren kanpo politika inperialis-
ta kritikatzeko. Berarentzat,
herrialdea existitzen da beti-

danik existitu den moduan:
inperio bezala. Horrela sortu
baitzen, esplizituki gainera.
Herrialdearen egungo inpe-
rialismoa sortze beretik ete-
nik gabe garatu den prozesu

zuen ahotsa Indonesiako Go-
bernua, AEBak saldutako ar-
mekin, Ekialdeko Timorren
egiten ari zen basakeriaren
aurrean. Urte luzez iraun
zuen kanpaina hark, apurka-


da. Gizakiak pairatutako su-
frimendua, miseria hain han-
dia izanik, arindu eta gaindi-
tu daitekeena gainera,
funtsezkoa da. Existitu behar
ez liratekeen hainbeste zapal-

Ilustrazioarekin. Nahiz eta gi-
zakiaren naturaren izate fun-
tsezko horren harira berak
egindako ekarpenak aparte-
koak eta jorratu dituen ideia
politiko eta sozialen defini-
tzaileak diren.

Chomskyk beti errespetatu
ditu Ilustrazioaren idealak:
arrazoia, azterketa kritikoa,
adierazpen askatasuna, iker-
ketarako askatasuna... Beti
saiaitu da egungo gizartera
horiek zabaltzen, egokitzen.
Nolabait, sinple adierazita,
agian sinpleegi, hori izan da
zientzialari eta politikaren fi-
losofo honen programa eta
intsignia.

Azken ideia bat

Herbeheretako telebista pu-
blikoak Michel Foucault eta
Noam Chomskyren arteko
eztabaida gogoangarri bat



Ilustrazioaren idealak beti errespetatu dituen libertarioa da Noam Chomsky pentsalari estatubatuarra. GAUR8

baten azken fasea baino ez da
berarentzat.

Chomsky da, dudarik gabe,
Ameriketako Estatu Batuetan
bake eta justiziazko printzi-
pioen eragin handieneko bo-
zeramailea. Salaketa lan ho-
rren adibide bat jartzearen,
aipatzekoa da ia inoren la-
guntzarik gabe, nola altxatu

apurka iritzi publikoaren
sektore zabalagoen arreta be-
reganatu zuen, Pazifikoko he-
rrialdean gertatzen ari zena
ulertzen hasi ziren estatuba-
tuarrak. Egun, independen-
tzia lortuta, herrialde subira-
noa da Ekialdeko Timor.

Ekintzaletasun politikoa,
Chomskyrentzat, oinarritzkoa

kuntza izanik, askatasunaren
aldeko sena, etenik gabeko
borroka beti izan behar da
presente, batik bat espezie
bezala desagertzera kondena
gaitzaketen arriskuak izanik.

Chomskyren arrazionalis-
moak aurretikako tradizio
batekin egiten du bat, Descar-
tesekin eta XVIII. mendeko

eman zuen 1971n. Gomen-
dinoa libre, eskuragarri dago
Interneten eta merezi du
ikusteak, liluragarria baita,
garai baten lekukotza aparta.

Eztabaidan, badago pasarte
eder askoa, pentsalari ilustra-
tu eta erradikal honen obra-
ren muina beste ezerk baino
hobe laburbiltzen duena. Ez-
tabaida betean, Foucaultek
gizateria osoa aldatu daiteke-
ela sinestea nola den posible
galdetzen dio, hori lortzea
ezinezkoa dela pentsatuz, as-
mo hutsala dela iradokiz. Ar-
tikulu honi akabera emango
dion Chomskyren erantzuna,
ezaguna bezain argigarria
izan zen: «Esperantzarik ez
dagoela barneratzen baldin
baduzu, esperantzarik ez dela
egongo ziurtatuko duzu. As-
katasunaren aldeko sena ba-
dugula onartzen baduzu, or-
duan gauzak aldatzeko
aukera izango da oraindik».